

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektu honetan bi bezero mota ditugu, kantitate handian erosten duten bezeroak (eskolak, enpresak...) eta eskari pertsonalizatuak egiten duten bezeroak.

Eskari pertsonalizatuak egiten dituzten bezeroei, sortutako web orrialde edota sare-sozialen bitartez helarazten diegu, alde batetik, proiektuaren asmoa eta oinarriak, eta bestetik, eskaintzen ditugun produktuak, bakoitzaren zehaztasunak eta eskaintzen ditugun pertsonalizatzeko aukerak.

Bestalde, gure produktua azoka desberdinetan aurkeztearen ondorioz, enpresa desberdinekin sortzen ditugun kontaktu edota aliantza desberdinetatik jasotzen ditugu kantitate handiko eskariak.

Gainera, hainbat ikastetxe edota bulegoetan langileak dituzten enprekin mezu desberdinen eta komertzialaren bitartez kontaktuan jartzen gara, gure produktuaren berri izan dezaten. Honekin batera, gaur egun oso ezagunak diren sare sozialen bitartez ere ezagutzera eraman dugu gure produktua.

Karkasen banaketa aldetik, solik aukera bakarra dugu, hau da, eskari pertsonalizatu baten bezeroak produktua erostean, hau jasotzea nahi duen helbidera bidaliko dugu. Enpresek edota ikastetxeek eginiko eskariak zuzenean hauen bulegoetara bidaliko dira.

